

**AKTA
(2018/01)****EUSKERA AHOLKU BATZORDEA**

Bilkura: Ohikoa
Data: 2018ko otsailak 23
Lekua: Gaztelekua (Kultur Etxea)
Hasiera-ordua: 19:10
Amaiera-ordua: 21:15

Etorritakoak:

Batzordeburua: Juan Karlos Agirre
Beralagun eta AEK – Marimar Hernandez
Besalde – Anabel Alegria
Eleizalde ikastola – Lexuri Markina
Euskeraz Berbetan – Albert Zarate
MB2000 aisialdi elkarteak – Maribi Larrinaga
Sagrado Corazon Ikastetxea – Asier Abaroa
Batun batun aisialdi elkarteak – Maite Atxikallende
Zinegotzia – Benito Ibarrolaza
Zinegotzia – Jon Goikolea

Ezin etorria adierazi dute:

Gotzon Garitaonaindia euskaltegia - Marije Layuno
LAB sindikatua – Ramon Garaizar
Kultura Saila – Susana Regidor
GIZ – Iñaki Lopez

Teknikari aholkulariak: Ainara Ibañez
Maite Alvarez

Idazkaria: Maite Alvarez

Aztergaiak**1.- Euskararen Plan Estrategikoa (2018-2022) lantzeko proposamena**

Egindako diagnostikoaren eta Euskararen Plan Estrategikoaren aurkezpena egin da eta Euskara Aholku Batzordeko kideen iruzkinak jaso dira:

- *Planak jasotzen dituen lan-ildoekin ados.*
- *Bermeon igartzen da euskararen aldeko kontzientzia falta.*



- *Gazteak lotsatu egiten dira bermeotarrez berba egiteagatik. Nagusiek ere gazteei euskaraz gaizki egiten dutela esaten diete. Kanpotik topiko barregarriak ere entzun behar izaten dira.*
- *Euskararen zuzentasunean indar gehiegi jarri da.*
- *Bermeotik kanpo, hemen baino gehiago apreziatzen da euskera.*
- *Gizonek gutxiago erabiltzen dute, eremu erdaldunagoetan mugitzen dira: enpresak, futbola, ekonomia. Mutil gazteek zergatik ez dute erabiltzen?*
- *Tabernetan eragin beharra dago. Tabernetatik jende asko mugitzen da. Gazteak txokoetan egoten dira gehiago. Tabernariak ahobizi eta belarriprest izatea lortu behar dugu.*
- *Kiroleko aisialdian gehiago eragin beharra dago.*
- *Euskara turismoa eta kalitatearekin lotu beharra dago.*

Hiru taldetan antolatuta, Plan Estrategikoak jasotzen dituen neurrien irakurketa eta kontrastea egin da. Hauek izan dira egindako ekarpenak:

- *1. Gurasoak eta familiak euskararen transmisioaz sentsibilizatzea: sentsibilizazio-saioak umeekin egitea, gurasoekin eta baita ume eta gurasoekin batera. Jaietan jolasak, mendira irteerak...*
- *6. Belaunaldien arteko ahozko transmisioa indartzea...: ipuin-lapiko indartzea*
- *9. Euskararen Aholku Batzordea elkarlanerako eta parte hartzeko gunea izatea Bilerak gehiago publikizatzea, herrian euskararekin lotuta antolatzen diren programen informazioa jasotzen duen agenda osatzea*
- *42. DBH4ko gaztexeci euskaraz irakurtzeko baliabideak eskaintzea. Liburu gaurkotuak eta egokiak eskaini. Aukeratzeko aukera izan dezatela*
- *39: Umeentzako eta gazteentzako kultur eskaintza handitzea: antzerkia, ikuskizunak*
- *48. Herriko taldeen euskarazko diskak diruz laguntzea eta horien zabalkudea egiteko laguntza eskaintzea*
- *49. Euskaraz irakurtzeko ohitura zabaltzea herritarren artean. Herritarrek zer irakurtzen duten jakiteko azterketa egitea*
- *50. Zinema euskaraz ikusten zaletzea. Pelikula gehiago euskaraz, gazteak ez dira enteratzen noiz botatzen diren filmak*
- *51. Herrian dauden arnaguneak identifikatzea. Mapa batean lokalizatu, kronograma, noiz leku bakoitzean. Mapa epe laburrean errebisatu eta eguneratu.*
- *53. Herritarrek sustatutako kultur mugimendua. Herriak sortu behar du, udalak bultzatu*
- *55. Ume eta gazteen euskararen erabilera areagotu, kirol-elkarteekin lan eginez. Diru-laguntzetan baldintza zehatzak txertatu*
- *57. Aisialdi talde bat sortzea, umeen artean euskararen erabilera bultzatzeko. Hip hop eskolak. Lekua arazoa izaten da.*
- *59. Euska informalaren erabilera indartzeko kanpainak martxan jartzea. Euskaraldiak honetan ere lagunduko du*
- *62. Tabernariekin elkarlanean aritzea. Euskararen alde egiten dutenei errekonozimenduren bat egitea, konpetentzia sortu. Kafe Antzokiak eta beste batzuek errepasso bat behar dute.*



Euskera Batzordean Planari egindako hainbat ekarpen ere aipatu dira.

Amaitzeko, batzarra berba batez baloratu dugu:

- Ondo
- Kostata
- Ondo
- Luzetxu
- Umore ona
- Goxo
- Majo dau

2.- Eskariak eta itaunak

Ez da egon ezelako eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, batzordeburu Juan Karlos Agirre Santa Maria jaunak amaitutzat eman du batzarra, goiburukoan aitaturako ordu, egun eta leku berean, eta nik, idazkariak, erabakitakoa eta eztabaidatutakoa jasota geratu dadin, hori guztia idatzi eta ziurtatzen dut.

BATZORDEBURUA

IDAZKARIA

